

Hegoaldeko euskal literatura milurte berriaren atarian

(Basque literature in the peninsular Basque Country before the new millennium)

Olaziregi, Mari Jose
Euskal Herriko Unibertsitatea
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
Euskal Filologia Saila
Unibertsitateko ibilbidea, 5
01006 Vitoria-Gasteiz

Euskal literaturaren bilakaera garaikideaz eta milurteko berrirako erronkez mintzatuko gara gure hitzaldian. Horretarako euskal literatur sistemaren berezotasun eta ahuleziez hausnarketa eginez hasiko gara eta ondoren ekingo diogu literatur genero nagusien bilakaera aztertzeari. Eztabaida kritikoak, merkatuaren lege berriak edo ugarituz doan eskaintza literarioa gure azterketa antolatzen lagunduko diguten gaiak izango dira. Gure azterketaren osagarri, kanona/margina, zentroa/periferia bezalako bikoteetatik abiatuz egindako irakurketa eta proposamenen berri ere emango dugu. Finean, literatur lan onek eragiten dituzten emozioz betetako irakurketak, metafora kritikoak, izango ditugu gure bidaia lagun.

Giltza-Hitzak: Euskal Literatura. Literaturaren Historia. Literatur Kritika. Literaturaren Soziologia.

Hablaremos en nuestra conferencia de las características que han condicionado la evolución de la literatura vasca contemporánea y los desafíos del nuevo milenio. Para ello empezaremos por una reflexión acerca de la singularidad y carencias del sistema de la literatura vasca y a continuación estudiaremos la evolución de los géneros literarios mayores. Los debates de la crítica, las nuevas leyes del mercado o una oferta literaria cada vez más abundante son temas que ayudarán a ordenar nuestro análisis. Como complemento del estudio, a partir de binomios tales como canon/margen, centro/periferia daremos cuenta de la lectura y propuestas realizadas. Lecturas al fin y al cabo llenas de la emoción que provocan los buenos trabajos literarios, metáforas críticas, serán nuestras compañeras de viaje.

Palabras Clave: Literatura Vasca. Historia de la Literatura. Crítica Literaria. Sociología de la Literatura.

Nous parlerons dans notre conférence des caractéristiques qui ont conditionné l'évolution de la littérature basque contemporaine et les défis du nouveau millénaire. Pour cela nous commencerons par une étude sur la particularité et les faiblesses du système de la littérature basque et ensuite nous étudierons l'évolution des genres littéraires majeurs. Les débats de la critique, les nouvelles lois du marché ou une offre littéraire de plus en plus abondante sont des thèmes qui aideront à ordonner notre analyse. Comme complément d'étude, à partir de paires telles que canon/marge, centre/périphérie nous rendrons compte de la lecture et des propositions réalisées. Lectures, en définitive pleines de l'émotion que provoquent les bons travaux littéraires, métaphores critiques qui seront nos compagnes de voyage.

Mots Clés: Littérature Basque. Histoire de la Littérature. Critique Littéraire. Sociologie de la Littérature.

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 639-647. - ISBN: 84-8419-906-1.

Artikulu labur honetan, azken hogeita hamar urteotako euskal literaturaren bilakaera aztertuko dugu eta milurteko berrian izango ditugun erronka nagusiak aipatuko. Hurbilen *sistemikoa* izango da euskal instituzio literarioaren elementu desberdinek deskribatzeko erabiliko duguna. *Periferia/zen-tro* bezalako dikotomietatik abiatuz, kanonizazio prozesuez mintzatuko gara eta gure literatur sistemaren ahulezia nagusiez: harrera literarioaren mugez eta bitartekari faltaz. Jarraian, modernitate osteko euskal literaturaren joerak eta ezaugarriak definituko ditugu eta 70eko hamarkada amaieran gertatzen diren berrikuntza poetikoak zehaztuko. Antzerkiaren egoera kezkarria, saiakeraren igoera eta bermatzea, edo azken urteotan indartuz joan den generoen hibridazioa izango ditugu hizpide. Eguno euskal literaturaren diagnostiko hau amaitzeko, genero narratiboan ipuingintzak eta eleberrigintzak izan duten bilakaera, edo genero poetikoan gailenduz joan diren ildoak aztertuko ditugu. Ikusiko dugun modura, aniztasuna eta poetika tradizio-naletarantzko bira dira gaurko euskal errealitate literarioa definitzen dutenak.

Loaldi luze batetik esnatutako triku batekin konparatzen zen euskal literatura Bernardo Atxagaren poema ezagun batean. Poetak zioskunez, XX. mendean esnatu zen triku horrek bide luzea egin du oso epe laburrean eta horixe izango dugu mintzagai, hain justu, hurrengo lerroetan: euskal literaturaren bilakaera garaikidea baldintzatu duten ezaugarriak eta milurteko berrian izango dituen erronkak. Horretarako, gure jarduna antolatzeke, euskal literatur sistemaren berezkitasun eta ahuleziez hausnarketa eginez hasiko gara eta ondoren ekingo diogu literatur genero nagusien bilakaera aztertzeari. Eztabaida kritikoak, merkaturaren lege berriak edo ugarituz doan eskaintza literarioa gure azterketa antolatzen lagunduko diguten gaiak izango dira.

Gauzak horrela, ezertan hasi baino lehen, bada hitzaldi honi eman diogun izenburu handinahian ezinon puntua eragiten digun zera bat, izan ere, biltzar eta bestelakoetan izenburu deigarriek euren funtzioa betetzen dutela jakitun garen arren, ezinezkoa baita hegoaldeko euskal literaturaren azken joerei buruzko ganorazko laburpen bat minutu gutxi batzuetan egitea. Aitzakia hori mintzaldi gehienetan jarri ohi duguna izanik ere, arazoa nabarmenagoa suertatzen da oraindik egiten eta berregiten ari den gure literatura hizpide bihurtzen dugunean. Horrela-ko egoeratan, hobe Claudio Magris-i kasu egitea eta entzuleen eskuzabaltasunean sinestea, urduritasuna baretzeko bada ere.

Aitzakiak aitzakia, hegoaldeko azken urteotako euskal literaturaz hitz egitera etorri gara hona eta honi dagokionez, zehaz dezagun hasieratik bertatik, interpretazio erromantiko oro saihestuz, euskal literaturaz hitz egiteko “literatura nazional” bezalako abiapuntuak saihestu behar ditugula. Iragan denboretan askotan aipatu dugun kontu honek badu, literaturaren ikuspuntu konparatzaileari dagokionez behintzat, bere garrantzirik. Claudio Guillenek bere ikerlanetan esan bezala (ik. *Multiple moradas. Ensa-*

yo de Literatura Comparada, Bartzelona, Tusquets, 1998), XVIII. mendetik gailendu den literatura kontzeptua nazioen mugak gainditu eta *unibertsala/par-tikularra* arteko tentsioaren arabera definitzen baita. Alegia, literatura bada gure solasgaia, hau da, plazerzko irakurketak bilatzen dituzten sorkuntza-lanen multzoa, kezka poetikoak ez dira asko aldatuko Zarautz edo Pragan sortutako idazle baten artean. TS. Eliot-ek “Tradition and Individual Talent” (1920) artikuluan zioenari jarraiki, garai eta hizkuntza desberdinetako egileak garaikideak eta aberkideak baitira literaturan, hots, literatur tradizio batean barneratzen baitira. Beste modu batean esateko, euskal literaturaz hitz egiteko ezinbestekoa dugu, gure literatur sistemaren berezitasunez gain, ikuspuntu konparatzailea erabiltzea eta behialako irakurketa endogamikoak gainditzea. Hori onartuz, benetan ulergaitza egiten zaigu biltzar honetan bertan iparraldeko eta hegoaldeko *balizko* euskal literaturen artean egiten den bereizketa, literatura nazionaletan antolatutako panoramak eztabaidagarriak diren garaioan, ez baitakigu zertan gabiltzan gurean erdiragarria den muga politikoa hausnarketa literarioa ekariz. Agian, egokiagoa litzateke “euskal herriarren literaturez” mintzatzea eta horrela, euskal literatura, hau da, euskaraz sortua, gaztelaniazkoa eta frantsesa bereiziko genituzke. Hirurak egiten dira Euskal Herriko mugen barnean eta bereizketa honek, nabaria denez, sorkuntzarako erabiltzen den hizkuntzarekin du zenikusia eta ez muga politikoeekin. Hortik zihoazen Claudio Guillenen zehaztapenak lehenago aipatu dugun liburuan.

Bestalde, milurteko berriaren hasiera honetan literaturari berari arazo zaizkion hainbat kontuez ere hitz egiteak mereziko lukeelakoan gaude. Merkatuaren legeetara errenditutako gaurko liburugintza, mendebaldeko kanonaren iraulketa, irakurketaren onespenez sozialaren jaitziera, kritikaren rol berria,...¹, euskal literaturaren oraina eta etorkizunaz eztabaidatzeko gai interesgarriak izango lirateke. Halaz ere, gaurkoan askoz ere xumeagoa izango da gure abiapuntua eta euskal literatur munduaren diagnostikoa egiteko, zertzelada *sistemiko* batzuk ematera mugatuko gara. 50eko hamar-kadan jarduera autonomo gisara finkatu zenetik, luzea da euskal literaturak egin duen bidea. Kantitatez nahiz kalitatez aberatsenak izan diren azken hogeita hamar urteotan, euskal literatur instituzioa sendotu egin da, baina literaturak ez du lortu euskal gizartearen bizitza kulturean benetan errotuta egotea.

Deserrotze horrek gure literatur sistemaren alderdi ahulenez mintzatzera eramango gaitu eta *periferia/zen-tro* dikotomiaren araberrako analisisa egitera. Azken hauei esker lortuko dugu gaurko literatur panoraman gailentzen diren genero, joera edo fluktuazioen berri izatea. Edonola ere, aitor dezagun periferia edo marjina kontzeptuek badutela kanonizazio prozesuez haratago doan beste adiera bat. Hastapenetan aipatu dugun Claudio Magrisek

1. Ikus, adibidez, A. Keman-ek bere *The Death of Literature* (1990) liburuan literaturaren irakaskuntzaz egindako hausnarketa interesgarria, edo G. Steinerek *Real Presences*-en (1991) kritiken gehiegikeriez argitara emandakoak.

azpimarratu duen bezala, idazle oro mugetan mugitzen baita beti, muga (edo marjina) baitu sorkuntzarako akuilu funtsezkoena:

Todo escritor, lo sepa y lo quiera o no, es un hombre de frontera, se mueve a lo largo de ella; deshace, niega y propone valores y significados, articula y desarticula el sentido del mundo con un movimiento sin tregua que es un continuo deslizamiento de fronteras².

Mugetan ibiltze horrek ahalbidetzen dio idazleari *munduaz pentsatze a mundua pentsatze ko*. Andu Lertxundiri hartu diogun baieztapen iradokitzaile honek (ik. *Mentura dugun arte an*, Alberdania, 2001) ezin hobeki adierazten digu sorketa literarioaren garrantzia. Idaztean edo irakurtzean munduaz, errealitateaz pentsatzen dugu eta era berean, errealitate hori sortzen dugu. Ekin diezaiogun, hortaz, euskal literaturaren marjinez eta mugez hitz egiteari. Ondoren ikusiko dugunez, gure errealitate literarioaren topografiak goitibehera ugariko mapa irudikatzen digu.

EUSKAL LITERATURAREN MUGAK KANPOAN: PERIFERIA KONTUEZ

Adituek diotenez, ingelesezko literaturan, 80-90 hamarkadetan, gune periferikoetan (Eskozia, iparaldeko Irlanda,...) sortutako egile eta obrek garai-ko kanon britainiarrean eragin funtsezkoa izan dute³. Hau da, periferiko izatetik gune guztiz zentrala izatea lortu dutela esan daiteke, garaiko literatura britainiarreko erreferentzia duda ezinezko bihurtu direla. Ez da hori, inondik ere, Espainian periferietako literaturekin gertatu dena. Literatura periferiko izendapenak Q. Monzó bezalako idazleak asaldatzen baditu ere (bere ustez, literaturan ez baitago zentro eta periferiarik)⁴, kontua da instituzio literario espainiarrak leku gutxi egin diela, orain artean, euskal autoreei. Bernardo Atxagaren kasu salbuespenekoa, Espainiako Narratiba Sariaren laguntzaz bultzatutakoa, azken urteotan A. Lertxundiren edo R. Saizarbitoriaren itzulpenekin osatu da apur bat. Baina ez gaitezen engaina, euskal literatura oraindik ikusezina da espainiar instituzio literarioan eta honen frogak ugarik bezain mingariak direlakoan gaude. Begiratu, bestela, Jordi Gracia irakaslearen zuzendaritzapean beriki argitara eman den *Historia y crítica de la literatura española. Los nuevos nombres 1975-2000* (vol. 9/1, Madril, Crítica, 2000) liburuan euskal egileek duten presentzia ezdeusa; edo Espainiako Unibertsitateetako departamentuetan euskal ikasketen ausentzia erabatekoa. Gure unibertsitateetan espainiar estatuko hizkuntza desberdinetako literaturak ikas daitezkeen bitartean, alderantzizkoa ez da gertatzen. Alegia, gaur egun errazagoa da euskal literaturari buruzko doktorego tesi bat EEBB-etako unibertsitate batean egitea,

edo euskal literaturari buruzko eskolak Nantes-en, Erroman, Aberdeen-en, Poznan-en,... jasotzea espainiar estatuan baino. Oraindik ere Espainiako estatuan antolatzen diren biltzar edo jardunaldiak gona gonbidatzen gaituztenean beti daukagu sentsazioa erabaki politikoki zuzen baten ondorioz gaudela han, eta sariei dagokienez, Atxagari emandakoarekin kuota gehienak bete ditugula luzarorako. Guztion ahotan dagoen errealitatea dugu berau, beharrezkoa dugun promozio eta kanporatzearen adibide. Eta esan dezagun argi: kanporatu, ez kalitatezko bermerik behar dugulako, kanporatzeak idazleen profesionalizazioa ez ezik, euskal instituzio literarioko kide diren hainbat elementuren indartzea ekarriko lukeelako (kritikarien edo unibertsitate-harmanaren indartzea, kasu). Finean, literaturaz mintzo bagara, zergatik ez ahalegindu solaskide (irakurle) berrien bilakuntzan?

Aurreko gogoetak estatu espainiarrari badagozkio ere, berdin mintzo gitezke euskal literaturak atzerrian duen oihartzunaz. Duela gutxi argitara ematen genuen artikulua batean genioen bezala⁵, euskal literaturak Europan egin duen ibilbidea “bakardade-en kronika” gisara izenda genezake eta kronika horren bi protagonista nagusiak, esan beharrik ere ez dago, Bernardo Atxaga eta Mariasun Landa izango lirateke. Alferrik hasiko gara hemen berri ere gogoratzen Koldo Mitxelena 1960ko bere “Asaba zaaren baratza” ezagunean itzulpenaren alde egin dako aldarriak, edo urte batzuk beranduago, 1987an egin zen II. Euskal Mundu Biltzarrean, orduan Euskal Idazleen Elkartearen lehendakari zen J. M. Velez de Mendizabalek itzulpen politikaren beharraz esandakoak. Kontua da, beste arrazoiren artean, orain gutxi arteko dirulaguntzarik ezarengatik, J.M. Iparragirrek famatu egindako “Eman da zabal zazu” hura oraindik urruti daukagula. Horregatik mintzo zen Harkaitz Cano 2000. urteko Frankfurteko Azokan euskal literaturaren bakardadeaz. Garai hartan Canok W. C. Auden-en *Letters from Iceland*eko pasarteak irakurri zituen eta uhartearen bakardadearekin konparatu euskal literaturaren egoera. Kopuruak ezin esanguratsuagoak dira⁶: 50 liburu inguru dira, gutxi gora behera, euskaratik beste hizkuntzetara itzuliak izan direnak. Horretaz gain, bada azpimarragarria suertatzen den datua: itzulpen horietako asko argialetxe oso txiki eta marjinaletan egindakoak direla eta ez dutela zabal-kunde handiegirik izan (*Leturiaren Egunkari Ezkutua* edo *100 metro* bezalako eleberri ezagunen kasua paradigmatikoa da zentzu honetan).

XX. MENDE AMAIERAKO EUSKAL LITERATURA: MODERNITATE OSTEO PANORAMA SISTEMIKOA

Euskal literatura garaikidearen joerak eta kano-nak aztertzen hasi baino lehen, beharrezkoa litzateke

2. Magris, C., 2000, *Utopía y desencanto*, Anagrama, Bartzelona, 68.

3. Galván, F., 2000, *Márgenes y centros en la literatura británica actual*, Alcalá, Universidad de Alcalá.

4. Ik. Pfeiffer, M., 1999, *El destino de la literatura*, Bartzelona, El acantilado, 46.

5. Ik. Olaziregi, M.J., 2001, “La literatura vasca en Europa” in Amado, V.M. & De Pablo, S. (coord.), *Los Vascos y Europa*, Gasteiz, Sancho El Sabio, 2001, 125-155.

6. Ik. Torrealdai, J.M., 1997, *Euskal Kultura Gaur*, Arantzazu, Jakin.

egungo gure literatur sistemaren ezaugarriez bi hitz egitea. Berez, sistema kontzeptua Claudio Guillen irakasleak 1971n erabili bazuen ere lehenengoz, gaur egun Teoria Enpirikoen jarraitzaileen artean oso hedatuta dago. Sistema literarioaz mintzo garenean, literatur jardueraren alderdi semiotikoa, komunikatiboa eta instituzionala uztartu nahi dituen kontzeptua darabilgu. Testu literarioetan soilik oinarritutako hurbilpen kritikoak gaindituz, sistema literarioak literatur jardueraren alderdi sozio-historikoa aztertzen du, hau da, kultura literarioa dei dezakegun horrekin dituen harremanak zedarritzen ditu. Gauzak horrela, euskal literatur sistemaz mintzo garenean, euskal literatur testuen *produkzioa*, *bitarte-karitzea*, *harrea* eta *birsorkuntza* bameratzen dituen egituraz mintzo garelako argitu beharko genuke. Egitura horretan, azken atalean sartuko lirateke kritikak egin ditzakeen ekarpenak, *birsorkuntza* terminoarekin haxe baita adierazi nahi duguna: testu literarioen gainean egiten den irakurketa sortzailea. Bigarren uneko sorkuntza hau, kritika, interpretazio, iruzkin, parodia, laburpen, egokitzapen, parafraasi edo film moduan gauza daiteke. Eta sistema bat dela diogu, elementuok guztiok elkaren artean lotuta daudelako eta elkar eragiten dutelako: *ekoizleak* (idazleak) obra bat sortzen du; *bitarte-kariak* produktu hori *hartzaile*en eskuetan jartzen du, bereziki, irakurleen eskuetan. Azkenik, *birsorkuntza* dei diezaiogekunari dagokio obrari buruzko bigarren sorkuntza saioa (kritika, iruzkin,...) egitea.

Halarik ere, euskal literatur sistemaren deskribapen zehatzak aurkezpen labur honen mugak gaindituko litzukeenez, alderdi esanguratsuenak azpimarratzera mugatuko gara⁷. Esan dugunez, euskarazko literatura 50eko hamarkadan instituzionalizatu zen jarduera autonomo gisara. Alabaina, urte batzuk beranduago, 80ko hamarkadan, sortuko dira euskal literatur sistema sendotzeko baldintza sozio-historiko berriak. Argitaletxeak ugalduz (ik. Torrealdai, J.M.: 1997:560), sorketa literarioarako dirulaguntzak plazaratuz, edo sariketak bultzatuz, euskal literaturaren munduak ordura artean izan gabeko dinamikotasuna erdietsi zuen. *Ustela* edo *Pott* aldizkariaren ildoari jarraiki, berrikuntza poetikoaren aldaria literaturaren autonomiaren aldarri bilakatzu joan zen *Potte*koen testuetan. Abangoardia kontzeptuari hertsiki lotuta dagoen literaturaren autonomiaren aldeko jarrera honetan⁸, sorkuntza literarioarekiko konpromisoak adierazpide desberdinen ikerketa eragin zien sortzaileei.

Bestalde, sistema kontuez ari garenez, azpimarragarria da egoera politiko berri baten etorrerak ez zuela automatikoki euskal literaturaren bilakaera eta joeren aldaketa erabatekoa ekarri. Historiografia literarioan kontu handiz ibili behar dugu aldiak zehazteko orduan, jakina denez, jarduera literarioak bere lege propioak dituelako. René Wellekek esan bezala (ik. *Literary Theory*), konbentzio, arau eta joera poetiko batzuk gailentzen diren denbora ata-

lak mugatzen du aldi literario bat. Horregatik, hurbilpen eta kontestualizatze sozio-historikoak ongi badaude ere, argi utzi behar dugu irizpide literarioek garamatzatela euskal literatura garaikidearen sorburu eta mugari erabatekoa 1975ean kokatzera. Urte horretan, otsailean, “Panpina Ustela edo literaturaren aldeko garrasi bat” argitaratu zuten K. Izagirrek eta B. Atxagak. 1975ean hil ziren, halaber, Franco diktadorea eta G. Aresti poeta handia. Garai berri bati ematen zitzaion hasiera.

1979ko Autonomi Estatutuaren onarpenak euskal literatur sistema sendotzeko legezko baldintza eskaini bazuen ere, ordurako joera berriak, *modernitate osteoak* dei ditzakegunak finkatzen hasiak ziren gurean. Genero desberdinak birpasatuz gero, antzerkian, esaterako, G. Arestiren ekarpenarekin hasitako modernizazioak, jarraipena izan zuen 1974an B. Atxagaren antzerki Nazional Herriar eta Iraultzaileen aldeko manifestuarekin⁹. *Cómicos de la Lengua-Kilikariak* eta beste hainbatekin antzerkia egiteko modu berriak ezartzen zihozten garai haietan, profesionalizazioaren aldeko apustu eta kezkek hainbat ekimen eragin zituen urte haietan (besteak beste, 1977an egin zen Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra edo Antzerki Eskolaren sorrera 1981ean). Modernitate osteo euskal teatroaren panorama anitz eta eklektikoan, instituzioen subentzioei esker bizirauten duen generoa dugu gaur egun antzerkiarena¹⁰.

Berdin generorake genero narratibo eta poetikolari buruz: hauen kasuan ere modernitate osteo ereduak finkatzen hasita zeuden 1979rako. Eleberriri dagokionez, esaterako, oso epe laburrean, 1957an Txillardegik lehenengo euskal eleberrimodernoa argitaratzen duenetik (*Leturiaren egunkari ezkutua*), R. Saizarbitoriak 1976an *Ene Jesus* argitaratzen duen arte, eleberririk existentzialistatik eleberririk esperimentalaren mugetaraino iritsi ginen. Frantzian, J.P. Sartre edo A. Camus-en eleberrigintzatik P. Sollers-enera dagoen bilakaera, gurean 7 urte eskasetan eman zen. Poesiaren kasuan, beriz, Mirande eta Arestiren tradizio modernoarekin eten zuen hurrengo poema liburua Bernardo Atxagaren 1978ko *Etiopia* izan zen, J. Gabilondok esan zuen moduan¹¹, modernitateko poesiaren kanona finkatu zuen liburua.

Dakusagunez, baldintza sozio-historiko berriek lehenagotik hasia zen euskal literaturaren autonomizazio prozesua bultzatu eta indartu besterik ez zuten egin. Beste kontu bat da baldintza historiko

9. Ik. Atxaga, B., 1974, “Euskal Teatro Berria(ren bila)”, *Anaitasuna*, 74-1-31, II-15.

10. Kultura Saileko Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzak eskainitako Sarea-ren 2000 urteko emaitza estatistikoak begiratu besterik ez dago antzerkiak gurean duen egoeraz jabetzeko. Datuen arabera, 2000. urtean 228 konpainia izan ziren Sarea-n 285 ikuskizun eskaini zituztenak. Guztira, 1.084 funtzio egin ziren eta 373.297 ikusle hurbildu zen berauetara. Kostuen eta sarreraren arteko desoreka nabarmena da: % 39ko defizita izan baitzuten emanaldiok. Programatutakoaren laurdena da euskaraz egiten dena.

11. Gabilondo, J., 1993, “Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan. *Etiopia-z*”, *Egan* 45.2, 33-65.

7. Euskal Literatur Sistemaren deskribapen zehatzagorako, ikus Olaziregi, M.J., 2002, *Euskal eleberraren historia*, Bilbo, Labayru/Amorebieta-Elxanoko Udala.

8. Ik. Bürger, P., 1987, *Teoría de la vanguardia*, Bartzelona, Península.

berriek literaturaren bilakaeran eta bereziki, genero batzuenetan izan duten eragina neurtzea. Adibide argiena, segur aski, genero narratiboak euskal liburugintzan erdietsi duen protagonismoa izango litzateke. 1936-1975 urteetan poesia bazen euskal genero hegemonikoa, gaur egun literatur liburuaren % 60 da narratibazkoa. Dударik ez dago, indartzen ari zen literatur sistema berriak genero komertziale-na bultzatu zuela¹², errentagarritasunari ez ezik, gero eta ugariagoak ziren ikasle euskaldunen eskareri ere aurre egiteko. Genero narratiboen igoera hori are nabarmenagoa bihurtu zen 80ko hamarkadak aurrera egin ahala, jakina denez, 70eko hamarkadaren erdi aldera oraindik genero poetikoaren eta narratiboaren produkzio-ehunekoak antzekoak baitziren¹³. Euskal liburugintzan presentzia ahulena duten generoei begirada bat boteaz, esan dezagun antzezlanen argitalpena benetan gutxituz joan dela (1999an % 7 zen soilik genero horretakoa) eta saiakerari dagokionez, aro demokratikoaren hasieran izan zuen jaitsieraren ostean (ik. J. Azurmendi: 1991¹⁴), azken urteotan berriro ere igoera aipagarria izan duela (1999an % 9 zen saio liburua), beste arazoiren artean, argitaletxe batzuen ekimenari esker (Alberdania, Erein) edo berriki sortu diren sariei esker (Pamiela argitaletxeak bultzatutako Zelaia Saiakera Saria, kasu). Bere garaian Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa* (1985) eta Jose Azurmendiaren *Euskaldunak eta Espainolak* (1992) saio liburuek izan zuten arrakasta erabatekoa, gaur egun merkaturatzen ari diren lan berrien (J. Alonso, P. Perurena eta hainbat lanen) akuilu direlakoan gaude. Halaber, esan dezagun saiakera dugula azken urteotan emaitza interesgarrienetakoa eman dizkigun literatur generoa. Saiakera lanak argitara eman dituzte, esaterako, euskal narratzaile ezagunek (R. Saizarbitoriaren *Aberriaren alde (eta kontra)* (1999) edo A. Lertxundiren *Gogoia Zubi*

12. Eta komertzialki errentagarriak diren generoez mintzo garenez, gogora ditzagun azken urteotan ugarituz joan diren euskal *best-seller*ak. Lehendik ezagutzen genituen liburu salduen zerrendari, azken aldian urtero bina edo hiruna argitalpen izan dituzten lanak gehitu zaizkio. Eta datu garantzitsua: guztiak dira narraziozko liburua. *Kutsidazu bidea, kabel* (26. argitalpena, 2001ean) edo *110 Street-eko geltokia* (22. argitalpena, 2000an) eleberrizagunen ondoan, 1999an lau argitalpen izan zituen *Ostegunak* (15. argitalpena, 2000an) liburuaren kasua aipatu beharko genuke. Irakaskuntzaren zirkuituarekin (eskola + euskaltegiak) izan dezaketen lotura onartuz ere, liburuak promozionatzeko moduak, komunikabideetan izan duten oihartzuna, edo generozko narratibarekin dituzten haren argiak (umorezko nobela, nobela poliziakoa,...) *best-seller* fenomenoaz mintzatzeraz garamatzate. Oro har, liburuok *best-sellerei* egozten zaizkien ezaugarriak betetzen dituztela esan genezake. Estilistikoki: hizkuntza zehatz eta erraza, elkarriketa biziak, deskribapen gutxi narrazioaren mesedetan. Narrazio-estrategiei dagokienez, osteraz, suspensearen edo umorearen erabilera dosifikatua, pertsonaia markatuak, filmi edo eguneroko berrizagunei erreferentzia egiten diren testu arteko loturak, edo nobela beltzetako giro ilun eta arriskutsuen oihartzunak.

13. Sariketa Literarioek ere izan dute zereginik narraziozko generoen igoeran. Torrealdaik dakartzan datuei kasu eginez gero (ik. 1997), 1959-1994 arteko lehiaketa literarioak zenbatuz, narraziozko generoetan, guztira, 279 lehiaketa jasotzen ditu Torrealdaik; poesian, 104; antzerkian, 33 eta saiakeran, 29. Honetaz gain, bada beste datu interesgarri bat: narratibazko generoen artean ipuingintza saritzera bideratutako lehiaketen kopuru handia eleberriarekin konparatuz gero.

14. Azurmendi, J., 1991, "Euskarazko saioa XX mendean", *Hegats* 4, 177-199.

(1999), kasu), eta saiakera dugu, halaber, generoen arteko hibridazio iradokitzaileen eskaini dizkiguna: B. Atxagaren *Groenlandiako lezioa* (1998) edo J. Alonsoren *Kamenbert helburu* (1998) lan bikainak genero honen malgutasunaren adibide ditugu. Dugarik ez dugu egiten, hasi berri dugun milurteko honetan, literatur genero honek eta berrari buruzko ikerketak orain artean eman duen zeresana baino handiagoa emango duela.

Nahiz eta euskal liburugintza sendotuz joan den (argitaratutako liburu kopurua 1.500 aletara iritsiz; argitaletxe sarea zabalduz; euskal idazleen kopurua ugarituz,...), gure literatur sistemaren alde-rik ahulenak oraindik ere harrerari dagokiona eta birsortzaileei dagokiena ditugu. Euskal irakurleen perfila ezezaguna zaigun honetan, badakigu euskarazko irakurzaletasunak irakaskuntza zirkuituari her- siegia jarraitzen duela eta larriagoa dena: azken urteotan eredu euskaldunetan aritu diren gazteen gehiengo ez dela euskal literatura kontsumitzaile bihurtu¹⁵. Edo beste hitzekin esateko, pasioz eta gustuz egindako irakurketak oraindik gehienetan gaztelaniaz egiten direla gurean. Horixe izango da datorren milurteko honetako euskal literaturaren beste eronkarik nagusietako bat: gustuz egindako irakurketa literarioaren sendotzea. Finean, euskarazko sorkuntza literarioak zentzurik izango badu horixe bilatu behar baitu: helburu akademiko edo hezitzaileak gaindituz, plazer estetiko hutsa bilatzen duten irakurleak ugaritzea.

Euskal literatur sistemaren irudi azkar hau osatzeko, esan dezagun birsortzaileen atala dugula oraindik ere gurean eztabaidatuena. Iazko *Euskal Kritikagintzari buruzko I. Jardunaldi*¹⁶ (2000) esan genuen moduan, euskal kritika akademikoak 80ko hamarkadatik hona izugarrizko sendotzea izan duen moduan, kritika publikoa eskasa da oraindik ere gurean. Euskal prentsa eta dibulgaziozko testuetan kaleratzen diren kritikak eta erreseinak ez dira nahikoak eta gainera, oinarritzko akats bat dute: ez dutela kritikan egiten. Gauzak horrela, bitartekariak behar ditu egungo euskal literaturak. Bitartekariak etxean, euskarazko produkzioa irakurleengana inits dadin, eta bitartekariak kanpoan, oraindik urriak diren dirulaguntzei esker itzultzen diren lanak mugitu eta bultzatzeko.

GENERO KANONIKOAK ETA PERIFERIKOAK GAURKO PANORAMA LITERARIOAN

Azken hamarkadetako eztabaida literarioan ezerk zeresanik sortu badu, kanonaren inguruko auziak eragin du. Harold Bloom-en *Mende baldeko Kanona* (1994) liburu ezagunaren ondoren piztutako polemikan haxe zen Bloomi kritikatzeko zitzaio- na: arraza zuriko gizonezko europarrak nagusi ziren zerrenda kanonikoa botere politiko eta kulturala

15. Ik. Olaziregi, M.J., 1998, *Euskal gazte en irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*, Bergara, Bergarako Udala.

16. Laster Eusko Ikaskuntzak emango du argitara Gasteizko Filologia Fakultatean 2000ko otsailaren 16an egin ziren jardunaldi haien akta-liburu eleaniztuna.

zuen instituzio literarioak egindakoa zela. Gerora, nahiz eta kanon kontzeptua bera auzitan jarria izan den, erabilgarria suertatu da literaturaren azterketa sozio-historikoak egiteko garaian. Esan beharra dago, egun Nevadako Unibertsitateak Renon duen egoitzan irakasle den Joseba Gabilondo izan zela kanonaren inguruko hausnarketak gureru ekarri zituen lehenengo euskal kritikaria. 1993an *Etiopia* poema liburuaz argitara eman zuen artikulu bikainean, testu kanoniko duda ezinezkotzat jo zuen Atxagaren lan ezaguna¹⁷ eta kanonaren inguruko eztabaida egungo euskal literaturaren bilakaera aztertzeke erabili zuen. Azkenaldian genero edo liburu kanonikoak hizpide bihurtu baditugu ere, mota honetako azterketek gurean tratamendu zabalagoa beharko luketelakoan gaude.

Edonola ere, paradigma teorikoetara itzuliz, I. Even-Zoharen planteamendu sistemikoak izan dira kanonizazio prozesuak aztertzen ahalegindu direnak. Berak darabilen kontzeptuaz baliatuz, ez da zaila gurean gune zentral edo kanonikoa duten genero edo literatur motak zeintzuk diren zehaztea. Gizonezkoek euskaraz sortutako lanak eta helduentzat idatzitakoak izango lirateke euskal literatur sisteman gune zentrala izango luketenak. Hainbatetan esan izan dugun modura, itzulpenek, haur eta gazte literaturak, edo emakumezkoek idatzitako literaturak, gune marjinala dute oraindik, periferikoa esan-go lukete teoria sistemikoen defendatzaileek, euskal literatur sistema garaikidean.

Lehenengoari dagokionez, itzulitako euskal literatur ondareari alegia, Manu Lopez-ek aurkeztu berri duen doktorego-tesitik kanpo¹⁸, ez du euskal kritikan arretarik merezi izan. Eta arreta gehiago mereziko luke ez bakarrik hizkuntza literarioari itzulpenek egin dioten ekarpenarengatik, baita poetika eta eredu literarioen mailan egindakoarengatik ere. Manu Lopezek euskarara itzulitako haur eta gazte literaturari buruzko bere tesian frogatu duen modura, jatorrizko sorkuntzan ezezagunak edo eskasak ziren poetikak itzulpenen bidez iritsi baitziren gureru.

Azken urteetan egin diren zenbait lanek birritan deitoratu dute euskal literaturaren androzentrismoa (ikus, besteak beste, White, L. (1996); Gabilondo, J. (1998); Olaziregi, M.J. (1999)¹⁹). Gizonezkoa izan da ikerketen gune eta zentroa gurean, eta honek eragin zuzenak izan ditu ohiki eskaintzen diren emaitzetan. L. Whiteren ikerketaren ondorioei kasu eginez gero, 1980 bitarteko emakume literaturagileen ehunekoa 3tik 27ra igoko litzateke urte horietan idatzi zuten emakumezkoen lanak benetan

kontuan hartuz gero. Halarik ere, azken urteotan gauzak aldatzen hasiak direlakoan gaude: presentzia mediatikoaz gain, kritikaren arreta handiagoa ere erdietsi baitute emakume idazleek. Gure irudirako, igoera kuantitatibo batez baino gehiago, igoera kualitatiboaz mintzo gintezke (2000. urtean L. Oñederrak lortutako Euskadi Saria, edo M.A. Meabek lortutako Kritika Saria horren adibide ditugu). Horretaz gain, komunikabide eta argitaletxe batzuek “emakumezkoen literaturaren boom” gisara izendatu duten azken urteotako errealitate editoriala bestelakoa dela esan beharrean gaude: 1995-2000 urteetan argitaratu duten egileen artean % 15 bakarrik baita emakumezkoa.

Genero edo literatur mota periferikoak alde batera utziz, argi dago milurteko honen hasieran genero narratiboa dela euskal literaturan gune zentrala duena. Gure liburugintzan gero eta protagonismo handiagoa lortuz joan den genero honek liluratu ditu 90eko hamarkada baino lehenago poesia-lanak argitaratuta zeuzkaten hainbat egile, hala nola, L. M. Mujika, I. Aranbarri, E. Jimenez, X. Montoia, J.L. Oñamendi edo M. Erzila. Era berean, azpimarratzekoa da 80eko hamarkadan ipuingintza izan bazen berrikuntza eta proposamen iradokitzaileenak eskaini zizkiguna, XX. mende amaierako generorik kuttunena eleberria izan dela. Euren hastapenetan ipuin liburuak argitaratu zituztenak (I. Mujika Iraola, A. Egaña), edo euskal panoraman hasi berriak diren hainbat egile (L. Oñederra, I. Rozas), eleberrigile gisara azaldu zaizkigu 90eko hamarkadan. Horiekin batera gogoratu beharko genituzke eleberririk nahiz ipuinak erregulartasunez kale-ratu dituzten hainbat idazle: E. Jimenez, X. Montoia, H. Etxeberria, J.M. Ituralde, H. Cano, P. Arísti,...

Fluktuazio horietan, nahiz gurean egin diren azterketa soziologikoetan ikus daitekeenez (ik. Torrealdai, J.M.: 1997; Olaziregi, M.J.: 1998²⁰), narratibazko lanek nahiz egileek liluratu dituzte euskal instituzio literarioaren kide ditugun idazle, irakurle edo kritikariak. Euskal literaturaren historia garaikideetan narratzaileek izan duten harrera kritikoaz bat, idazleek eurek egile onenak kontsideratu dituztenei edo irakurleek gogokoen dituzten lanei begiratzen badiegu zalantzarik ez dago: egungo euskal literaturaren kanona gizonezko narratzaileek finkatzen dute²¹.

20. Torrealdai, J.M., 1997, op. cit. Olaziregi, M.J., 1998, op. cit.

21. J.M. Torrealdaien 1997ko inkestan, “Zeintzuk dira idazle Hoberenak?” galderari emandako erantzunak oso adierazgarriak direlakoan gaude: 1975eko inkestaren konparatuz gero, genero desberdinen ordezkariaz orekatu egiten dela ikusten dugu baina hala ere narratzaileak direla nagusi (ik. Torrealdai, 1997: 475):

Idazleak	Botoak
Bernardo Atxaga	122 boto
Anjel Lertxundi	103 “
Joseba Sainionandia	89 “
Ramon Saizarbitoria	76 “
Joan Mari Irigoien	60 “
Koldo Izaguirre	55 “
Txillardegi	45 “
Joxe Azurmendi	32 “
Joxe Austin Arrieta	29 “
Juan Mari Lekuona	27 “

17. Ik. Gabilondo, J., 1993, op. cit.

18. Ik. Lopez, M., 2000, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

19. White, L., 1996, *Emakumeen Hitzak Euskeraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century*, Nevadako Unibertsitatea, doktorego tesia. Argitara gabea. Gabilondo, J., 1998, “Del exilio materno a la utopía personal política cultural en la narrativa vasca de mujeres”, *Insula* 623, 32-36. Olaziregi, M.J., 2000, *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.

Amaitzeko, esan dezagun genero narratiboaren gailentasuna duda ezinezkoa den garai hauetan poesiak baduela oraindik, batez ere egile gazte hasiberrien kasuan, bere erakarmen eta indarra. Jon Kortazarrek oroitarazi digun moduan²², 1990etik 2000. urte bitartean 38 idazlek argitaratu zuten euren lehen poema liburua eta horien artean kausi ditzakegu 70eko hamarkadan jaiotako euskal idazle berri asko: Kimen Uribe, Asier Serrano, Igor Estankona, Jose Luis Padron, Urtzi Urrutikoetxea, Castillo Suarez, Xabier Olaso, etab. Poesiarentzat garai onak ez diren hauetan, guztiz azpimarratzekoa da poeta gazteon lan gehienak kaleratu dituen Susa argitaletxearen ahalegina, poesia-sail bat ez ezik, Koldo Izagirrek zuzendutako *XX mendeko euskal poesia kaierak* izeneko bilduma eskaini diguna.

BUKATZEKO: EUSKAL LITERATURAREN POETIKA ETA JOEREN PANORAMA EKLEKTIKOA MILURTEKO BERRIAREN HASIERAN

Ez genuke egungo euskal literaturari buruzko hausnarketa hau amaitu nahi, azken urteotan genero desberdinetan gailendu diren poetikak laburki deskribatu gabe. 70eko hamarkadaren ostean marraztuz joan zaigun mapa aberatsak, modernitate osteko ezaugarri berezkoenak egiten ditu bere: aniztasuna eta poetika tradizioaletarantzko bira. Behiala, “moderno” izan behar bazen, alegia, apurtzailea, orijinala, gaur egun modernismoaren protagonista izan zirenak museoetan edo arte-galerietan ikusten ditugu (edo fotokopietan inprimatzen), eta unibertsitateetan kanonizatzen. F. Jamesonek dioen moduan, orduantxe hasi baitzen posmodernitatea, kanoniko eta eredugarriak kontsideratzen ziren maisuak zaharkituta zeudela pentsatzen hasi zirenean 60ko hamarkadan.

Eleberrigintzari dagokionez, azken hogeita hamar urteotan definituz joan zaigun mapa uharte eta artxipelago ugari zosia agertzen zaigu. J.L. Borgesek literatura ingelesaz zioenari jarraiki²³, geuk ere esan genezake euskal eleberrigile bakoitza uharte bat dela, eta uharte izaera horrek hein handian zailtzen duela euskal literaturaren historiagilearen lana. 1976an, R. Saizarbitoriaren *Ene JEsusekin* amaitu zen aldi esperimentalak teknika modernoez baliatuz istorioak kontatzen zituen eleberrigintzari eman zion bide. 1979an argitara eman ziren bi eleberririk esaten ari garenaren adibide bikainak ditugu. Batetik, J. A. Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*; bestetik, A. Urretabizkaiaren

Zergatik, Panpox. Biak dira azpimarragarriak erabilitako estrategien modernotasunagatik, baina horretaz gain, bietan istorio bat kontatzen zaigu, dela bazkalondo batean orvitzen diren bizitza-pasarteek osatzen dutena, dela ama abandonatu baten egunerokotasun hitsa iradokitzen diguna. Orduz geroztik, euskal eleberraren ibilbidea izugarri aberastuz joan da, tipologia desberdinetako eskaintza ugari-tuz. Esan daiteke, gaur egungo euskal eleberririk barrura begiratzen duela batez ere (ik. subjektibitate ardatz duten eleberririk) eta kanpora begiratzen duenean ere (ik. eleberririk errealistak), gertakari batzuen lekukotza objektiboa eman baino gehiago, kontzientzia batean izandako eragina adierazi nahi da. Horiekin batera, generozko eleberrigintza (eleberririk poliziakoa eta beltza, kasu), eleberririk fantastikoa (edo errealismo magikoa), eleberririk historikoa, eleberririk saiakera arteko hibridoak,... edo eklektizismoa bere egiten duten obrak dira nagusi.

Lehenengo tipologiai dagokionez, hau da, subjektibitatea ardatz duten eleberririk dagokienez, bere *nian* sakondu nahi duen ahots narratzailea gailentzen da testuetan; bere izea, arazo moralak, ezinegonak,... narratzaile-pertsonaia baten bidez kontatzen dizkiguten eleberririk dira hauek. J.C. Mainerek zioskun bezala, “literaturaren pribatizazioaz” mintzo ginatezke, barrurantz begiratzen duten lanez. Askok dira joera subjektibo honetan sartzen diren euskal idazle eta eleberririk, baina adierazgarrienak diren obra eta autoreak aipatzen saiatuko gara: lehenago aipatutako J.A. Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979) eta Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox* (1979), nahiz *Koademo gorria* (1998); Felipe Juaristiren *Arinagoa duk airea*, *Absalon* (1990); Juan Luis Zabalaen *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* (Elkar, 1985), *Kaka esplikatzen* (Elkar, 1989) eta *Agur, Euzkadi* (Susa, 2000); Xabier Mendigurenen *Bekatuaren itzala* (1995), Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika Pauso* (1995), *Bihotz bi* (1996) eta *Gorde nazazu lurpean* (2000); Manu Erzillaren *Ez* (1999), Lourdes Oñederraren *Eta sugeak emakumeak esan zion* (1999); Ixar Rozasen *Edo zu, edo ni* (2000) edo Laura Mintegiren *Sisifo maite minez* (2001).

Aurrekoekin batera, errealismo mota desberdina bere egiten dituen nobelagintza da azken urteotan gurean gailendu dena. Errealismoa, ez noski, XIX. mendean egiten zenaren antzera, aurrerape-nean eta arrazionalismoan sinesten duen mundu ulergarria islatzeko, baizik eta aurpegi anitz dituen mundu aldakorra kontatzen saiatzeko. Nobela garaikidearen aldaketa eta berrikuntza formalak bereganatuz, edo beste adierazpide artistikoen ekarpenak bere eginez (batez ere, zinemarenak), errealismo literarioak aurpegi asko izan ditu XX. mendeko egileen lanetan: errealismo objektibista, errealismo kritikoa, errealismo sozialista, errealismo magikoa, errealismo zikina.... Batzuek Jean Paul Sartrek idazleari eskatutako konpromisoa egingo dute bere, besteek, berriz, estilo fantastiko edo surrealista ere guztiz errealista izan daitekeela frogatuko digute. Baina oinarrian guztiak ahaleginduko dira XX. mendeko gizakia gehien aldatu duten gertakari eta arazoez mintzatzen.

22. Ik. Kortazar, J., 2000, “Hitzaurrea” in AA.VV., *A ponte das palabras. Poesia vasca 1990-2000. Hitzeko zubia. Euskal Poesia 1990-2000*, Santiago, Letras de Cal.

23. Ik. “Novalisek ingeles bakoitza uharte bat dela idatzi zuen; uharte izaera horrek zaildu egin du gure lana; izan ere, britainiar literatura, frantziarra ez bezala, banakoez osatzen baitute, ez eskolek. Erraza izango da datozen orrietan hutsuneak aurkitzea. Ez dute nahitaz adierazten axolagabekeria, ahanztura edo ignorantzia”. J.L. Borges & M.E. Vázquez, 1999, *Introducción a la literatura inglesa*, Madrid, Alianza.

Euskal eleberrigintzari dagokionez, esan liteke gure historian ainguratuago dauden istorioak kontatzeko premia sentitu dela, eta ildo honetatik, planteamendu gutxi-asko errealistak zituzten obrak areagotu joan direla. Begien bistakoa da eleberri errealistez ari garenean, lehenago esandakoaren ildotik, “errealitatea” irudikatzeko modu oso desberdinez ari garela. Gehienetan, unibertso narratibo bat sortzeko kanpora begiratzen duen ikusmolde poetikoari egiten diogu erreferentzia, baina begirada horrek, hainbat moldetako errealitateak eraiki ditzake: dela magiko-fantaskikoak (J.M. Irigoien *Poliedroaren hostoak* (1982) edo *Babilonia* (1989) ezagunak, Atxagaren *Bi anai* (1985)), dela ingurune urbanoa marrazten digun “errealismo zikina” (E. Jimenez *Speed gauak* (1991), U. Apalategiren *Gauak eta hiriak* (1997),...), dela beste garai historiko batean kokatutako errealitate bat irudikatu nahi diguna (K. Izagirre *Euzkadi merezi zuten* (1984), I. Mujikaren *Gerezi denbora* (1999), A. Egañaren *Pausoa noiz luzatu* (1999), Jimenez *Azken fusila* (1993), X. Montoiaren *Hezur gabeko hilak* (1999), Xabier Mendiguren *Gure barria 1975* (1998), J.M. Irigoien *Lur bat haratago* (2000)...), dela euskal egoera politikoaren ondorioak salatu nahi dituen errealismo kritikoa (Txillardegiren *Exkixu* (1988), L. Mintegiren *Nerea eta biok* (1995), K. Izagirre *Agirre zaharrena kartzelaldi berriak* (1999)...),... ugariak dira, ez bairik gabe, errealismoaren egungo aurpegiak.

ETAren inguruko problematika ere azken hamarkadetan argitaratutako eleberri askoren gai-ardatz komuna da, I. Aldekoa kritikariak azpimarratu duen bezala. Alor honetan, lehenago aipatu ditugun eleberri ezagun batzuez gain, 70-80ko hamarkadetan honako hauek aipa litezke: Xabier Amurizaren *Hil ala bizi* (1973), Ramon Saizarbitoriaren *100 metro* (1976), Mario Onaindiaren *Grand Placen aurkituko gara* (1983), Txillardegiren *Exkixu* (1988), edo Hasier Etxeberriaren *Mugetan* (1989). Hauekin batera, ezin ahaztu joan den hamarkadan argitaratutako batzuk: Mikel Hernandez *Etorriko haiz nirekin?* (1991), Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Zeru horiek* (1995), Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1994), Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* (1995), Xabier Mendiguren *Elizegiren Berriro igo nauzu* (1997), Patxi Zabaletaren *Arian ari* (1996), edo U. Iturriagaren *Berandu da gelditzeko* (1999).

Orobat, kontatzeko gustua berreskuratzeak, nobela beltza eta polizi nobelen ugaritzea ere ekarri du. Helburua, batez ere, irakurlea seduzitzea da suspensea dosifikatzen saiatzen diren estrategia narratiboen bidez. Haatik, bada, gure ustez, euskal eleberriari dagokionez gutxitan azpimarratu izan den kontu bat: genero poliziakoak gure narratzaileen konta-teknikei ekarri zizkien onurak eta berrikuntzak. Birpasa azkar bat egingo bagenu, segituan ohartuko ginatke 80ko hamarkadatik gaurdaino argitara eman diren eleberri askotan eleberri poliziakoetako teknikek gurean izan duten presentzia garrantzizkoa. Hasi 80ko hamarkadan kaleratu diren eleberri ezagunetatik (*Kcappo*; *Hamaseigarrenean aidanez...*) eta gaurko eleberri gehienetaraino

(*Gizona bere bakardadean*; *Bihotz bi*; *Ur uherrak*; *Beluna Jazz*,...) thriller modernotan erabiliak diren estrategia narratiboak kausi ditzakegu. Honetaz gain, dudarik ez dago eleberri mota honek gurean lortu duen arrakasta handia izan dela eta *110 Streteko geltokia* (I. Zabaleta) edo *Alaba* (G. Garate) bezalako liburuen berrargitalpenak irakurleen artean izandako harrera onaren adibide ditugula.

Javi Cillerok bere doktorego tesian dioskun modura²⁴, eleberri poliziakoan taldean, hiru azpisail bereizi ohi dira gehienetan: intriga edo misteriozko eleberriak, eleberri beltzak eta espioizko eleberriak. Euskal eleberriari dagokionez, aipagarria da azken urteotan egon den aldaketa funtsezkoa. Horrela, 70eko hamarkadako polizia-eleberrietan euskararekiko ardura eta eredu ingeles klasikoak (*whodunit* motako eleberrigintza) nagusitzen baziren, 80ko hamarkadaz geroztik *thriller* modernotik ezaugarriak nahiz eleberri beltz amerikararenak bereganatu ditu euskal eleberrigintzak. Euskal eleberri poliziako edo beltzen artean batzuk nabarmendu beharko bagenitu, Gotzon Garateren *Izuri berria* (1984); Hasier Etxeberriaren *Mugetan* (1989) eta *Arrainak ura baino* (1998); Joxe Mari Iturraldearen *Izua hemen* (1991); Xabier Montoiaren *Non dago Stalin?* (1991); Aingeru Epaltzaren *Ur Uherrak* (1993); Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Zeru horiek* (1995); Jon Alonsoren *Kate begi galdua* (1996), edo Harkaitz Canoren *Beluna Jazz* (1996) eta *Pasaia Blues* (1998) gogoratu genituzke.

Euskal eleberrigintza garaikideari egin diogun birpasa hau ez genuke behar bezala osatuko eklektizismoa bere egin duen A. Lertxundiri erreferentziarik egin gabe. Hasi bere eleberri alegorikoarekin (*Ajea du Urturik*), narrazio neorealisteekin jarraituz (*Goiko Kale*), errealismo magikoaren ekarpenak thrilleraren teknikekin uztartuz (*Hamaseigarrenean aidanez*), edo *Otto Pettez* geroztik, bidaia literario metanarratiboak proposatuz (*Argizariaren egunak*), anitzak dira egileak landu dituen tipologiak.

Lehen esan dugun bezala, euskal ipuingintzak berrikuntza eta ugaltze izugarria izan zuen 80ko hamarkadan. I. Mujika Iraolaren iritziz²⁵, euskal ipuingintza moderno eta helduentzakoak bete-betean A. Lertxundiren *Hunik arrats artean* (Lur, 1970) ipuin bildumarekin hasten da. Modernotasun horren aurrekari aipagarrienak M. Ugaldere *Hiltzaileak* (1961) liburua, edo urte batzuk beranduago argitaratu ziren, Aresti, Mirande eta Etxepareren ipuin solteak izango lirateke. Alabaina, lehen esan

24. Ik. Cillero, J., 2000, “*The Moving Target: A History of Basque Detective and Crime Fiction*”, University of Nevada, Reno. Tesi argitaragabea.

25. Ipuingintzari buruzko erreferentzia laburro osatzeko, genero honi buruzko zenbait argitalpen interesgarri baliatu gara. Ikus, Mujika Iraola, I., 1991, “Ipuingintza”, *Hegats* 5, 1991ko abendua, 17-26; Aldekoa, I., 1993, “Mapak eta istorioak” in Aldekoa, I., 1993, *Euskal Ipuinen antologia bat*, Irun, Alberdania, 7-23; Aldekoa, I., 2000, “El cuento en euskera”, *Bitarte* 21, 111-115; Mendiguren Elizegi, X., 1997, “Aniztasuna eta Kalitatea” in Torrealdai, J.M., 1997, *Euskal Kultura Gaur*, Arantzazu, Jakin, 330-331.

bezala, 80ko hamarkadan sendotu zen ipuingintza-ren tradizio moderno hori eta sentsibiltate berriez aberastu. Horretarako, funtsezkoak izan ziren Pott bandako kideek, XIX-XX mendeetako maisuen gidaritzapean (Poe, Txekhov, Maupassant, Schowb, Kafka, Borges,...), sortu zituzten lanak. Atxagaren: “Ipuin bat bost minututan idazteko”, “Margarete: Schewester Sturmischer Schavermet” eta “Drink Dr. Pepper”, edo Sarrionandiaren “Maggi, indazu kamamila” eta “Enperadore Eroa” euskal narratiba erotik eraldatu eta berritu zuen unibertso literarioaren adibide ditugu. 1983an etorri zen J. Sarrionandiaren *Narrazioak* (1983) liburu bikaina eta bertan kausitu genituen, besteak beste, Miranderen itzalaren luzea edo Arthur erregearen ziklo zoragarria. Beranduagokoak dira *Atabala eta euria* (1986) eta *Ipar aldeko orduak* (1990). 1983-1985 epera itzuliz, gogora ditzagun garaiko beste hainbat ipuin-liburu interesgarri, hala nola, J. M. Iturralde-ren *Dudular* (1983) eta *Pic-nic arbasoekin* (1985), edo M. Hernandez Abaituaren *Ispiluak* (1983) eta *Panpinen erreinua* (1985). Esperimentalismoak ere izan zuen bere jarraitzailerik gurean eta horren lekuko ditugu K. Izagireren *Zergatik bai* (1976) eta *Gauzetan* (1979). Birpasa azkar honetan, ezin utzi aipatu gabe Hegoameriketako aireek, eta bereziki García Márquezek A. Lertxundiren *Urtero da aurten* (1984) bezalako liburuetan izandako eragina, edo J. Rulforen unibertso liluragarriak I. Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan* (1987) liburu gogoangarrian izandakoa.

Zail da, ezinezkoa, lerro labur hauetan euskal ipuingintzak azken 20 urteotan izandako ildo nagusiak zedarritzea. Uste dugu X. Mendiguren Elizegi zuzen dabilela *Obabakoak* (1988) libururekin aldi bat itxi zela esaten duenean. Ordutik aurrera, eleberrigintzak protagonismo handiagoa hartu zuen baina ipuingintzak jarraitu zuen emaitza ederrak eskainiz. Erteuropako egileak gogorarazten dizkigun J.L. Zabalarren ipuingintza; poetika errealistagoetatik gertuago dauden K. Izagire, X. Mendiguren, X. Montoia, M. Antza, E. Jimenez,... bezalako egileen lanak; giza harremanen inguruan liburu interesgarriak kaleratu dizkiguten A. Iturbe (*Ezer baino lehen* (1992)) edo X. Montoia (*Enakume biboteduna*); J. Cortázar edo Carverren miresmena antzematen zaion H. Canoren *Teléfono kaiolatu* (1997),... eta aipatu gabe utzi ditugun hainbat eta hainbat ipuin liburu on: *Itzalen itzal*, *Sokratikoek ere badute ama*, *Karramarroaren aztarnak*,...

Bidaia literario honi amaiera emateko, egungo euskal liburugintza-ren hamarrena betetzen duen genero poetikoaz hitz bi esango ditugu. Arestiren poesia sozialaren erreleboa planteamendu eta poetika desberdinetatik etorri zen 70eko hamarkadan.

Batzuek, eduki eta molde existentzialistagoa zuten proposamenak kaleratu zituzten, hala nola, X. Lete, A. Uretabizkaia edo M. Lasak (ik. *Memory Dump*, 1993). Beste batzuek, berriz, sinbolismo osteko planteamenduetatik abiatu eta idazkera sintetiko edo trinkoagotara lerratu ziren (J.M. Lekuona, kasu), edo introspektziora (B. Gandiaga). 70eko hamarkadan ekin zion bere ibilbide poetikoari, K. Izagirrek. Hastapenetako bere *Itsaso ahantzia* (1976) estetika surrealstatik gertu bazegoen ere, beranduago, *Balitzko erroten erresuma* (1989) argitaratu eman zuenean, poesia konprometiturantz lerratu zen Izagire. J. Sarrionandiak ere, bere aldetik, Kavafis, Holan eta Pessoa maisuei gorazarre egin zien erreferentzia kulturalistaz jositako *Izen gordelekuetan barrena* (1981) liburua ostean, poesia konprometituaren ildo jarraitu du *Marinel zaharrrak* (1987) edo *Huny illa nyha majah yahoo* (1995) liburuetan.

Edonola ere, 70eko hamarkadako giro poetikoa astindu zuen libururik egon bada hori Bernardo Atxagaren *Etiopia* (1978) dugu. Egitura zirkularean antolatutako narrazio eta poema collage honetan, modernitate amaierako neke poetikoa da begitانتzen zaiguna. Hizkuntza mugak bortxatuz, abangoardien giro suntsitzailea bereganatuz (Dada, Espresionismoa), galtzailez betetako mundua irudikatu zigun poetak *Etiopian*. Handik aurrera, 80ko hamarkadan, joera aniztasuna da nagusi egungo euskal poesiagintzan. Robert Langbaun-en *The Poetry of Experience* (1957) liburua ostean hain ezaguna egin den “esperientziaren poesia” delakoak liluratzen ditu gaurko poeta gehienak²⁶. Horieta-ko batzuk (F. Juaristi: *Denbora, nostalgia* (1985) eta *Galderen geografia* (1997); A. Iturbide edo M.J. Kerejeta), sinbolismo edo estetizismora hurbildu dira euren esperientzia pertsonaletik abiatutako poesietan. Beste batzuk, T. Irastorzak kasu, molde intimistagoko lanak plazaratu dituzte. 90eko hamarkadan poesia produkzioa gutxitu egin bada ere, egile eta obra interesgarriak ezagutu dugu, R. Diaz de Herediarenak bezala (*Hari hauskorak*, 1993; *Kartografia*, 1998), edo G. Markuletarenak (batez ere, *Hautu lanerako poemategia* (1999)). Apurtzaileagoa, *underground* esango genuke dela Susa aldizkariaren inguruan bildutako poeten lana (K. Izagire, I. Arambarri, O. Nabarro, X. Montoia, Otamendi, I. Borda,...). Talde horretara hurbildu dira azken urteotan, J. Olasagarre, H. Cano, G. Berasaluze eta hainbat poeta gazte.

Iritsia zaigu ordua, presaka egindako txango literario honi amaiera ematekoa. Ikusi dugunez, erakargarria, anitza eta ugaria da gaurko euskal literaturaren panorama. Milurteko berri honetan ere irakurleak liluratzen jarrai dezan desio dugu.

26. Ik. Kortazar, J., 1997, *Luma eta Lurra*, Bilbo, BBK-Labayru.